



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

Alkatetzaren 2024/4719 Dekretuaren laburpena, 2024ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, «Lehentasunez artatzeko kolektiboetako enplegu-proiektu integralak» esparruan enplegu- eta prestakuntza-proiektuak gauzatuko dituzten erakundeak hautatzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena. BDNS(Identif.):803074.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/803074>)

#### Lehena. — Erakunde onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta izena emanda badaude Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen eroldan (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea), Lanbideren ebazpenak «Lehentasunez artatzeko kolektiboetako enplegu-proiektu integralak» programarako ezartzen duenaren arabera. Erakundeek gai izan behar dute gauzatzeko aurkeztuko diren proiektuko edo proiektuetako ekintza guztiak: kontratazioa, formakuntza, orientazioa eta akonpainamendu indibiduala.

#### Bigarrena. — Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo batzuk hautatzeko prozedura (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea). Erakunde horiek gauzatuko dituzte Basauriko Udalak aurkeztu eta lanbidek «Lehentasunez artatzeko kolektiboetako enplegu-proiektu integralak» deialdiaren baitan onartutako programak.

#### Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Deialdia argitaratzen da Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren babesean, zeina deialdiaren oinarri arautzailea baita. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

#### Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdi honen guztizko zenbatekoa 416.347,64 eurokoa da; finantzaketaren %17,78 Basauriko Udalarri dagokio, eta %82,22 Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatutako dirulaguntzari.

#### Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea zortzi (8) egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita,

#### Seigarrena. — Justifikazioak aurkezteko epea

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak hilabeteko epea izango du, kontratazioak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, diruz lagundutako jarduerak eta eginiko gastuak bete izanaren justifikazioa aurkezteko, moduluen erregimenaren bidez, kontuan izanik uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. eta 76etik 79era bitarteko artikuluetan jasotakoa.

Basaurin, 2024ko abenduaren 10ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren